

COVID-19ak sortutako krisialdi multisektorialaren aurrean erakutsitako erantzuna nabarmendu nahi dugu

- **Baldintza zailen aurrean EGK-k ikasle eta langileek egindako esfortzua azpimarratu nahi du**

Donostian, 2020ko ekainaren 1ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) gazteen konpromisoa eta COVID-19ak sortutako krisialdi multisektorialaren aurrean erakutsitako erantzuna nabarmendu nahi du. Azken asteotan hedabide zein sareetan zabaldutako irudi ezkorren harira gazteok erronka orotan erantzuteko gai izaten ari direla nabarmendu nahi du EGK-k, bai arlo sozialean, ikaskuntza eta lan-arloetan edo ikerkuntzan agertu direnak eta baita ere norbanakoaren erantzukizuna eskatzen dutenetan. Badakigu ere, oraindik erronka ugari gaingitu beharko direla.

Era berean, Gazteen Euskal Behatokiak egindako #EsanNolaDaramazun galdetegiak erakutsi bezala berrogeialdia ezarri eta segituan gazteen jarrera argia izan zen: 10etik 2k izena eman zuten boluntariora elkarrekin edo herri sareetan eta beste hainbestek egiteko asmoa adierazi zuten.

Honen aurrean, beste behin ere, gazteria zeharkakotasunez lantzea eta politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzea aldarrikatzen du Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Etorkizun iraunkorragoa eraikitzeke funtsezkoa da gazteen iritzia eta bidean inor atzean ez uztea. Politika publikoak, diru-laguntzak eta bestelako baliabide publikoak beharrezkoak dira. Ildo horretan, EGK-k gazteen iritzia eta baldintza duinak babesten jarraituko du.

Esfortzu intelektual, emozional eta ekonomikoa

Aste luzez egon gara etxean egoera zailei aurre egiten eta aro zaila izan da denontzat. Honek esfortzu intelektual, emozional eta ekonomiko handia eskatu du: ikasleei etxetik ikastea egokitu zaie eta azterketetako tentsioa bizitzea; etxebizitzan ikasle pisuei buruzko neurri eta erregulazio faltak zalantza asko sortu ditu, beka eta praktikekin zer pasako den ez dago oso argi...

Ilido beretik, lan esparruan zalantza ugari sortu dira, informazio gabezia jasan dute gazteek eta ERTE eta bestelako neurriek egoera are prekarioagoak azalerratu dituzte. Nola ez, ikerkuntza zentroetan ere gazteria izan da laborategietan esfortzu handiena egin duena.

Boluntariotza sareek urteak daramatzate gizartean dauden hainbat beharrei erantzuten, hauetako asko gainera gazteen esparrutik haratago doazenak. Eta bertan gazte boluntarioek egindako lana izugarria eta ezinbestekoa da.

Azkenik, deseskalatze prozesuan ardurarako deia egiten du EGK-k, egoera hobetzean doan arren oraindik bide luzea dagoelako aurretik. Osasuna eta pertsonak erdian jartzeko unea da, langileen eta ikasleen segurtasuna bermatzekoa eta gizarte bezala arduraz jokatzekoa: distantziak mantendu, arduratsuak izaten jarraitu, gomendioei kasu egin eta tentuz ibili.